

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2026ko errolda eta hura ordaintzeko epea irekitzea

Egin da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2026ko errolda, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, interesa dutenek egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkateari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

IBILGAILUEN GAINKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA

A.) Borondatezko epea: 2026ko irailaren 2tik azaroaren 2ra (biak barne).

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2026ko urriaren 8an.

Ordainketa helbideratuta ez duten zergadunek Kutxabankeko edozein bulegotan egin beharko dute, ordainketa gutuna udalean jaso ondoren.

B.) Kobratzeko betearazte aldia: 2026ko azaroaren 3tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Berantevilla, 2026ko uztailaren 28a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL